


Goi  
Mailako

Arte  
plastikoak  
eta diseinua

# Ilustrazioko goi mailako teknikaria



Nafarroako  
Gobernua  Gobierno  
de Navarra



UNIÓN EUROPEA  
EUROPAR BATASUNA

Fondo Social Europeo  
Europako Gizarte Funtza  
El FSE invierte en tu futuro  
EGFk zure etorkizunean inbertitzen du

# Ilustrazioko goi mailako teknikaria

## Zure etorkizuneko bizibidea

Ziklo hezigarri hau amaitzen duzunean kalifikatuta egongo zara hurrengo jarduera profesionalak garatzeko:

- Ilustrazio proiektu baten alderdi artistikoak, formalak, funtzionalak eta teknikoak identifikatzea, eta, hala badagokio, enkarguaren zehaztapenetarako egokienak diren pertsuasio-, informazioeta identifikazio-elementuak identifikatzea.
- Ilustrazio proiektuak planifikatzea eta egitea, aurretiaz zehaztutako zehaztapen narratiboak eta teknikoak kontuan hartuz.
- Ilustrazio proiektua egiteko erreferentziako dokumentazioa eta material grafikoa aukeratzea, aztertzea eta artxibatzea.
- Proiektuaren komunikazio eta adierazpen helburuei irtenbide grafikoa emateko, trebetasunaz aukeratzea eta erabiltzea egokienak diren teknikak eta estiloak.
- Ilustrazio proiektua gauzatzea, hura txertatuko den ingurune grafikoaren berezitasunak kontuan hartuta.
- Proiektuaren prozesuko fase bakoitzean kalitate kontrol egokiak ezartzea.
- Jatorrizko lanak egitea ondorengo erreproduzio prozesuen berezitasunak kontuan hartuz, eta behar diren jarraipena eta kalitate kontrola egiten jakitea.

- Ardura horietatik abiatuta eratortzen den edo sortzen den lana eraginkortasunez koordinatzea.
- Lanbide jarduerari buruzko berriarazko araudia ezagutzea eta betetzea.

### KONTUAN HARTU BEHAR DUZUNA

Titulu hau duen pertsonak profesional independente gisa egiten du bere lanbide jarduera, editortzeak diren askotariko genero eta alorretako ilustrazioak eginez, ideiak eta kontzeptuak adierazten dituztenak.

Bere lanbidea, enpresa edo erakunde baten menpeko marrazkilari edo aditu gisa garatzen du.

Beste profesional batzuekin lankidetzan aritzen da askotariko teknika eta estilo artistikoak erabiliz ilustrazioak asmatzean, interpretatzean eta sortzean.

Bere lanbidea sektore publikoan edo pribatuan gauzatzen du, komunikazioarekin eta ilustrazioarekin lotutako enpresetan: publizitate agentzietan, argitaletxeetan eta diseinuko estudioetan, prentsan, telebistan edo bestelako erakunde edo enpresetan.

Bere proiektuak egiten ditu jarduera artistiko independente gisa.



+ INFO

T 848 42 66 16 | 848 42 64 00

[www.educacion.navarra.es/eu/web/dpto/artes-plasticas-grado-superior](http://www.educacion.navarra.es/eu/web/dpto/artes-plasticas-grado-superior)

# Arte plastikoak eta diseinua

Lanbide eta lanpostu garrantzitsuenak hauek dira:

- Ikusizko komunikazioko, diseinu grafikoko, publizitateko eta ikus-entzunezko bitartekoetako lantaldeetako ilustratzaile/marrazkilari espezialista.
- Ilustrazioak egitea eta ekoizpena antolatzea eta berrikustea.
- Hainbat alorretarako jatorrizko ilustrazioak sortzea eta/edo egitea: zientzia, teknika, arkitektura, barne-diseinua, moda, publizitatea, diseinu grafikoa, produktuak, argialetxeak, prentsa.
- Liburu interaktiboak eta zabalgarriak (pop-up-ak) hiru dimentsiotan sortzea eta/edo egitea.
- Ilustrazio proiektuetarako proposamenak aztertzea eta bilaketa dokumentala eta grafikoa egitea alor ezberdinetan.
- Ilustrazioarekin lotutako jarduera kulturalak, hezkuntzakoak eta hedapenekoak egitea eta kudeatzea.

## ZIKLOAREN MODULUAK

---

- Ikusmenezko irudikatzearen eta adierazpenaren oinarriak.
- Irudiaren teoria.
- Baliabide informatikoak.
- Argazkigintza.
- Ilustrazioaren historia.
- Ilustrazioari aplikatutako marrazkigintza.
- Adierazpen grafikoko teknikak.
- Ilustrazio proiektuak.
- Ingelesa I.
- Irudikapen espazial aplikatua.
- Ekoizpen grafiko industrialak.
- Teknika grafiko tradizionalak.
- Proiektu integratua.
- Lanerako prestakuntza eta orientabideak.
- Enpresa, estudio edo lantegietako prestakuntza praktikoaren fasea.